- Jardueraren arduradunek zainduko dute jarduera era seguruan egingo dela; horretarako, osasun-neurriak gogoraziko dituzte ekintza hasi aurretik, eta ezarritako segurtasun-protokolo eta -neurri guztiak behar bezala beteko dituzte, ikasle guztiak osasun egoeran datozela ziurtatzeko.
- Jarduera asterako tenperatu hartu zaie hurrei eta eskuan gela emango zaie.

2. HIGIENE ETA PREBENTZIO NEURRIAK

- Jarduera gauzatuko den lekuan eta leku komunetan pertsona guztiek une oro gel hidroalkoholikoak izango ditu eskuragarri, eskuak garbitu ahal izateko.

3. IZENA EMATEA

- Izen-ematea online edo modu presentzian egingo da, ahal bada onlinea lehenetsiz. Ongizate sailak lagundutako familiak udaletik pasa beharko dute.

4. JARDUERAK EGOKITZEA

- Jarduerak aire zabalean egitea lehenetsiko da.
- Partehartzaileen sarrerak eta irteerak taldeka antolatu dira, familiakoen pilaketak saihesteko.



Taldeak gehienez 10ekoak izango dira, begiralea barne. Talde horiek egonkor mantendu behar dira, eta gainerako taldeetatik fisikoki isolatuta.

- Kontaktu fisiko etengabea eskatzen duten jarduerak egitea ekidingo da.
- Musukoen erabilpena (6 urtetik gorakoentzat, indarrean dagoen aginduak adierazi bezala): bereziki garrantzitsua da leku itxietan erabiltzea, bai eta aire zabalean ere, baldin eta segurtasun-tartea gorde ezin bada. Ahal dela, pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tartea errespetatuko da.
- Nork bere askaria edo janaria eraman ahal izango du jarduerara, eta ez du beste inorekin partekatuko. Bakoitzak bere ur botila ekarri beharko du egunero. Izena jarrita izan dezatela botilak edo hamaiketakoa ekarri duen ontziak.
- Egunero higie-neurriak gogoratuko dituzte ikasle guztiei.

JARDUERETAN HARTU BEHARREKO NEURRIAK:

- Jarduerak leku itxietan eginez gero, (tailerrak, bideogela..) pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia utziko da ahal den guztietan.
- Materialen desinfekzioa: ekintzetan erabiltzen diren material guztiak desinfektatu egin behar dira. Hasi aurretik eta bukatzean. Desinfektatzeko modua papera eta gel hidroalkoholikoarekin izango da.

5. BEGIRALEAK

- Talde bakoitzeko begirale bat izendatuko da, taldekideei harrera egiteko eta saioaren amaieran, hurrak beren legezko tutoreen esku uzteko. Arduradun horrek zainduko du distantzia fisikoko neurriak betetzen direla, eta horretaz gain, jende-pilaketak eragotziko ditu. Kontrolpean izango ditu jokabide arauak eta ekipamendu sanitarioak.
- COVID-19 gaitzaren inguruko prestakuntza espezifiko eta eguneratua emango zaie begiraleei

6. PARTE-HARTZAILEEN JOAN-ETORRIAK ETA JASOTZEA ETA ENTREGATZEA.

- Talde bakoitzeko begiraleak izango du ardura.
- Jakinarazpen bidez ez bada egiten, hurraren arduraduna ez den inork ezingo du hau jaso. Ekintza irauten duen bitartean ere ez.



7. JARDUERA GAUZATZEKO ESKAKIZUNAK

- **Hasi aurreko informazioa**

Parte-hartzaileei edo bere tutoreei jarduerak gauzatu bitartean higiearen eta segurtasunaren zer prebentzio-neurri hartuko diren argi eta garbi azaltzen dituen dokumentuak bidaliko zaizkie.

Zehazki, kontingentzia plan honetan jasotakoa:

- 1.- COVID-19ra egokitzeko plana.
- 2.- Prebentzioko protokoloa, COVID-19 gaitzarekin kutsatzeko arriskua dagoenean, edo kutsatutakoan jarraitu beharreko prozeduraren ingurukoa.
- 3.- Covid-19 gaitzaren kasu positiboren bat hautemanaz gero jarduteko modua.
- 3.- Parte-hartzeari, informatzeko betebeharrari eta baimen informatuari buruzko baldintzak onartzen direla bermatzeko dokumentu hau irakurri eta onartu beharko du.

- **Jarduerak iraun bitartean**

Jardueraren arduradunek zainduko dute jarduera era seguruan burutzeko baldintzak betetzen direla.

Parte-hartzaileei zer taldetakoak diren jakinaraziko zaie, eta begiralearekin elkartuko dira jarduerari ekiteko esleitu zaien espazio berezitan. Begiraleak harrera non egingo den jakinaraziko die bere taldeko kideei.

Begiraleak zainduko ditu portaerak osasun-alorreko agintariek emandako gomendioen baitan burutzen direla.

8. SEGURTASUNEO ETA HIGIENEO OINARRIZKO EKIPAMENDUA.

- Norberaren higienerako

Musukoak

Komunak, ura eta xaboiarekin.

Disoluzio hidroalkoholikoa jarduera gauzatu den eremuetan.

Erabilera bakarreko zapiak.

Desinfekzio produktuak garbiketa egiteko

- Materiala:

Elkarteak edo erakundeak erabilera orokorreko musukoak eduki behar ditu aldatzeko.

Gelak eta trapuak izango dituzte materialak desinfektatzeko.



PREBENTZIOKO ETA JARDUTEKO PROTOKOLOA, COVID-19 GAITZAREKIN KUTSATZEKO ARRISKUA DAGOENEAN EDO KUTSATUTAKOAN

PREBENTZIO NEURRIAK

1. Kontrol-neurriak, jarduerari ekitean: nor bere burua kanpoan uztea, eta sintomen zaintza aktiboa parte-hartzaileen eta profesionalen artean
 - COVID-19 gaitzarekin bateragarriak diren sintomak honako hauek dira: sukarra, eztula edo airea falta delako sentsazioa, eta sintoma atipikoak, hala nola odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako minak, beherakoak, bularraldeko mina eta zefaleak.
 - Parte-hartzaileak ezin du jardueran parte hartu COVID-19 gaitzarekin zerikusia izan dezakeen edozein sintoma sumatzen badu.
 - Parte-hartzaileak ezin du jardueran parte hartu gutxienez 14 egunez, COVID-19 gaitza izan duen pertsona batekin hurbileko kontaktua izan badu pertsona horrek sintomak zituen bitartean, edo pertsona harekin espazio berean distantzia gorde gabe egon bada, nahiz eta sintomarik ez eduki. 14 eguneko epealdi horretan, jarraipena egin behar da, gaixotasunaren zantzuak agertzen diren zaintzeko.
2. Transmisioa prebenitzeko neurriak
 - Parte-hartzaileek edo haien legezko tutoreek izango dute COVID-19 gaitzarekiko norberaren egoeraren erantzukizuna.
 - Higiene-jardunbide osasungarriak irakastea, sustatzea eta indartzea, langile eta parte-hartzaile guztien artean egin beharko da.
 - Garbiketako eta desinfektatzeko egitekoen maiztasuna handituko da.



COVID-19 GAITZAREN KASU POSITIBOREN BAT HAUTEMANEZ GERO JARDUTEKO MODUA

- Norberaren konpromisoa segurtasuneko eta higieneko neurriekiko, eta jardueretan inondik inora ez parte hartzeko konpromisoa baldin eta sintomak badituzte edo ondoezik badaude.

- Jarduteko modua, parte-hartzaileraren batek COVID-19 gaitzaren sintomak izan daitezkeenak baditu.

Parte-hartzaile batek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituenean edo jardueran zehar langile batek sintoma horiek detektatzen dituenean, helburu horretarako izendatutako gela batera eramango da (kultur guneko musika gelara) prozeduran identifikatu dena. Gela horretan aireztapen egokia eta poltsadun pedalezko paperontzi bat egongo dira, eta bertan botako dira erabili eta botatzeko musuko eta zapiak. Era berean, parte-hartzaileari musuko kirurgiko bat emango zaio, eta beste bat zaintzen duen pertsona helduari. Kasu bakoitzean dagokion familiari, tutoreari edo hurbilekoari jakinaraziko zaio eta lurralde- eremu horretako osasun-arloko edo osasun publikoko dispositiboarekin harremanetan jarriko gara; dispositibo hori argi eta garbi ezarrita egon behar da prozeduran (osasun- zentroa edo larrialdietako erreferentzia-telefonoa), kasua ebaluatu ahal izateko.

Ikaslea zein begiralea bada sintomak dituen, gizarte segurantzak egingo du jarraipena.



**PARTE-HARTZEARI, INFORMATZEKO BETEBEHARRARI ETA
BAIMEN INFORMATUARI BURUZKO BALDINTZAK ONARTZEA**

Parte-hartzaileei eta legezko tutoreei jakinarazteko eta haiek sinatzeko.

**PARTE-HARTZEARI, INFORMATZEKO BETEBEHARRARI ETA BAIMEN INFORMATUARI
BURUZKO BALDINTZAK ONARTZEA**

1. Erantzukizuneko adierazpena.
 - Parte-hartzaileak ezin du jardueran parte hartu, baldin eta COVID-19 gaitzarekin lotutako sintomaren bat badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).
 - Parte-hartzaileak ezin du jardueran parte hartu gutxienez 10 egunez, COVID-19 gaitza izan duen pertsona batekin hurbileko kontaktua izan badu pertsona horrek sintomak zituen bitartean (bizikideak, familiakoak eta leku berean gutxienez 15 minutuz 2 metroko tartea baino gutxiagora egon diren pertsonak) edo pertsona harekin espazio berean pertsonen arteko distantzia gorde gabe egon bada, nahiz eta sintomarik ez eduki. 10 eguneko epealdi horretan jarraipena egin behar da, gaixotasunaren zantzuak agertzen diren zaintzeko. PCR frogaren emaitza negatiboa izango da udalekuetara bueltatzeko bermea.
 2. Osasun-egoerari buruz egunero eta ez bertaratzearen arrazoiak aldi oro jakinarazteko konpromisoa.
 - Parte-hartzaileek ez bertaratzearen arrazoa jakinaraziko diote bere taldeko begirale arduradunari, eskuko telefonoaren edo idatzizko beste bitartekoren batez bidez.
 - Jarduerarekin zerikusia duen pertsonaren batek COVID-19arekin lotutako sintomarik badu, ez da bertaratuko, eta harremanetan jarriko da jardueraren arduradunarekin (zuzendaria, begiralea, etab.).
1. Nahitaezko higie-ne eta prebentzio-neurri pertsonalen betetzea onartzea
 2. Baimen informatuaren onarpena, udalekuetan izen emateak aurrez aipaturiko baldintzak onartzea dakar.



**HAURREN HEZKUNTZA-AISIALDIKO JARDUERETAN PARTE-HARTZEARI,
INFORMATZEKO BETEBEHARRARI ETA BAIMEN INFORMATUARI BURUZKO
BALDINTZAK ONARTZEKO DOKUMENTUA**

COVID-19aren inguruko nahitaezko higiene eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentua onartzea.

Irakurri ditut eta onartzen ditut nahitaezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentuan adierazitako konpromisoak.

Jarduera COVID-19ra egokitzeari buruz ITSASONDOKO UDALAK helarazitako dokumentuak irakurri eta onartu direlako adierazpena.

Adierazten dut jaso eta irakurri dudala jarduera COVID- 19ra egokitzeko prestatutako protokoloa, eta, beraz, proposatutako neurriak eta prozedurak ezagutzen ditudala eta ados nagoela.

Adierazten dut jaso eta irakurri dudala larrialdi-egoeretarako eta kutsatze-arriskuaren inguruan prestatutako protokoloa.

Udalekuetan izen emateak dokumentu honetan jasotako neurriak ezagutzen direla eta onartzen direla dakartza.

Sinatua:

Itsasondo, 2021eko maiatzaren 14an



COVID-19ari buruzko baimen informatua

Adierazten dut jakitun naizela, aurreko dokumentuetan adierazitako informazioa jaso eta arretaz irakurri ondoren, zer arrisku dituen, bai beretzat eta bai berekin bizi diren pertsonentzat, interesdunak COVID- 19ak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan jardueran parte hartzeak, eta nire erantzukizunpean hartzen dudala arrisku hori.

Dokumentu hau irakurtzea gomendatzen diegu, bai parte-hartzaileei eta bai familiakoei edo kargura duten tutoreei. (COVID-19) Koronabirus berriari buruzko galdera eta erantzunak. 2020ko martxoaren 17a. Osasun Alertak eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa. Espainiako Osasun Ministerioa. Eskuragarri hemen: https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/2020_05_11_Preguntas_respuestas_2019-nCoV-2.pdf

.....(n).....koren.... (e)an

IRUDI ERABILPENERAKO BAIMENA

Jakinik Norberaren Irudi Eskubidea Konstituzioak bermatzen duela, 1982-V-1eko lege Organikoan erregulatuta, Ohore-Intimitate Pertsonala eta Familiaren Irudiari buruzkoa, eta bestetik, gure erkidego autonomoan Norberaren Irudiaren eskubidea 3/2005otsailaren18ko legea 10. artikuluan, EHAA 2005eko martxoaren 30a, Haur zein Nerabeen Arreta eta Babesari buruzkoa, jasota dagoela aintzat hartuz;

Itsasondoko udalak eta Iturritxiki guraso elkarteak baimena eskatzera datorkizue guraso edo tutoreoi, zuen seme-alabak zuzenki azaltzen diren argazki-bideoak argitaratu ahal daitezen.

HAURRAREN eta GURASO/TUTOREAREN DATUAK

Haurraren izen-abizenak:
Guraso/Tutore legalaren izen abizenak:
.....
Guraso/Tutore legalaren NAN edoPasaporteak:
.....

BAIMENA EMATEN DUT:

Nire eme-alabaren irudia ager dadin antolatutako ekintzen argazkietan eta horrelakoetan azal daitezen:

- Euskarri digitaletan (sare sozial zein whatsapp bidezko deialdietan, web orrian,)
- Karteletan, argazkietan eta bideoetan.

Data.....

Sinadura



ITSASONDOKO UDALEKU IREKIAK 2021

**EGUNEROKO
BALORAZIOA
FITXAK**

ITSASONDOKO UDALEKU IREKIAK 2021

**EGUNEROKO
BALORAZIOA
FITXAK**

**Haur hezkuntza
4-5 urte**

Data: 2021-06-28

Taldea: Haur Hezkuntza

<p>Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....</p>	<p>Haurrak orokorrean ekintzetan parte hartu dute, pare bat haur kenduta jolasen bat ez zaielako gustatu.</p>
<p>Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...</p>	<p>Ezagutza jolasak arrakasta izan dute eta ondorengo jolasetan ere motibatuta egon dira.</p>
<p>Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...</p>	<p>Euskara nagusitu da naiz eta noizean behin gaztelaniazko hitz batzuk esan.</p>
<p>Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila eguneko nola izan den</p>	<p>Helburuak bete dira; ezagutza jolasen bidez haurrak elkarren artean gehiago ezagutu dira.</p>
<p>Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen</p>	<p>Ez dugu material berezirik behar izan.</p>
<p>Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...</p>	<p>Haurren jolas gustukoak jakin behar ditugu. Batzuetan jolas batzuk ez zaizkie gustatzen.</p>
<p>Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zireten...</p>	<p>Lehenengo sentsazioak onak izan dira. Taldearekin gustora sentitu gara eta haurrekin ere ondo moldatu gara.</p>



Data: 2021-06-29

Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Haurrak orokorrean ekintzetan parte hartu dute, baina atzo parte hartu ez zuen horietako batek gaur ere ez du joko edo ekintza batean ere parte hartu.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Eguneko ekintza nagusian haur guztiak parte hartu dute eta erabat gustura ikusi zaie. Gustura ikusi ditugun aldetik goiza ekintza berarekin pasa dugu.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Euskara nagusitu da naiz eta noizean behin gaztelaniazko hitz batzuk esan.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Helburuak bete dira; acrosport ekintzarekin haurrak gorputzaren mobilitatea kontrolatzen ikasi dute.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Haurtxokoan dauden koltxonetak frontoiean jarri ditugu.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Parte hartzen ez duen haurrak zergatik ez duen parte hartzen jakin eta gainontzeko lagunekin elkartzea lortu behar dugu.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...	Taldearekin gustora sentitu gara eta haurrekin ere ondo moldatu gara. Gainera pixkanaka haurrak gureganako konfiantza handitzen ari direla esan genezake.



Data: 2021-06-30
Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Haur guztiak jolasean elkarrekin jardun dute, eta parte-hartzea oso ona izan da.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	planifikatuta genuen gaurko ekintza ez egitea erabaki ugu, haurrak joko dinamikoagoak behar zituztelako. Baina parkean ongi moldatu dira.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Gaurkoan gaztelerak gainhontzeko egunetan baina presentzia handiagoa izan du, momentu horietan guk esku-hartzen genuenez euskarara itzultzen ziren.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Saioa guztiz aldatu dugunez, aurreikusitako helburuak ez dira bete, baina parkean elkartasuna nabaria izan da.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Ez dugu materialik erabili.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Gaur ez eugu hobetzeko ezer ere ez ikusi.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zaiten...	Sentsazioak oso onak izan dira, haurrak guztiz ireko dira eta gure aldetik ere ez dugu arazorik.



Data: 2021-07-01

Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Gaur haur guztiek hartu dute parte proposatutako ekintzetan, ez dugu beste egunetako arazorik izan.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Aurrez antolatzen ditugun ekintzak aurrera eramatea zaila da, baina beraien kabuz moldatu egiten dituzte eta denak elkarrekin jolasten dute.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Egunetik egunera gero eta gaztelera gehiago entzuten hasi garenez, haurtxokoan gometxa gorriekin gaztelera neurtzeko kartulina jarri dugu.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Helburuak bete dira, haurrei oso gustura ikusi zaie.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Baloiak, paratxuta... material asko erabili dugu.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Gaur ez dugu hobetzekorik ikusi.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...	Oso gustura ibili gara ikasle guztiekin.



Data: 2021-07-02
Taldea: Haur Hezkuntza

<p>Parte hartzea:</p> <p>Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....</p>	<p>Haur batek ez du ekintzetan parte hartu. Jolasetan parte hartzerantz animatzen saiatu garen arren, ez du parte hartu eta etxera joan da berezko ordua baino lehen. Bere ama gerturatu zaigu etxera eramango zuela esatera. Gainera, bere kexak eta desadostasunak adierazi dizkigu</p>
<p>Ekintzaren garapena:</p> <p>Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...</p>	<p>Ekintza ondo atera da, orokorrean. Ez dugu bestelako arazorik izan eta jolasak ondo atera dira.</p>
<p>Euskararen erabilera:</p> <p>Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...</p>	<p>Gaur euskara izan da nagusi, baina pare bat aldiz esan dugu euskaraz hitz egiteko.</p>
<p>Eguneko helburuak:</p> <p>Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den</p>	<p>Eguneko helburuak bete dira, haurrek ondo pasa dute.</p>
<p>Materiala:</p> <p>Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen</p>	<p>Material guztia ondo zegoen eta ez da gehiago behar. Plastikoa, globoak eta baldeak erabili ditugu.</p>
<p>Hobetzekoa:</p> <p>Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...</p>	<p>Etxera lehenago joan den haurrarekin adi egon beharko gara hemendik aurrera.</p>
<p>Hezitzailearen papera:</p> <p>Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...</p>	<p>Oso pozik egon gara eta oso ondo pasatu dugu gure haurrekin batera. Uste dugu haur guztiak berdin tratatzen ditugula eta haurrak gurekin gustura daudela.</p>



Data: 2021-07-05
Taldea: Haur Hezkuntza

<p>Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....</p>	<p>haur gutxi etorri ziren, eta horrek denak elkarrekin parte hartzea asko erraztu zuen. Orokorrean guztiek hartu zuten parte.</p>
<p>Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen</p>	<p>Ekintza modu egokian eraman genuen aurrera, baina bukaera alderako agian apur bat luzeegia egin zitzaien jardura.</p>
<p>Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...</p>	<p>Sarritan gaztelerara jotzeko joera dute, eta etengabe euskaraz egiteko zailtasunak ditugu.</p>
<p>Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den</p>	<p>Orokorrean bete direla esango genuke.</p>
<p>Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen</p>	<p>Plastikoak, jaboia, mangera...</p>
<p>Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...</p>	<p>Haurrak aspertzen hasten diren unerako zerbait pentsatuta edukitzea egokia izango litzateke.</p>
<p>Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zireten...</p>	<p>Gure sentsazioa oso positiboa izan da, baina euskararekin zer egin pentsatu behar dugu.</p>



Data: 2021-07-06

Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den.	Gaur haur guztiek hartu dute parte proposatutako ekintzetan.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egoña zen...	Ekintza oso ondo garatu da, baina, oso motz geratu da.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Haur askok gaztelerara jotzen dute, eta ez dugu horri aurre egiteko baliabiderik aurkitzen.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Helburuak bete dira.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Lentejak, kotoia eta yogurt poteak.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Prestatutako ekintza labur geratzen bada, soberan dagoen denbora aprobetxatzeko jokoak prestatuta edukitzea.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zireten...	Sentsazio oso onarekin egon gara, eta parte-hartzen ez zuen ikaslearen arazoa konpondu da.



Data: 2021-07-07

Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Haur batek ez du maskararen eskulana egin. Saiatu garen arren, ez du ekintzan parte hartu. Beste haur bat goizaren bukaeran nekatuta zegoen eta ez du zezenen harrapaketa parte hartu. Bestela, orokorrean, haur guztiek parte hartu dute.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Ekintza omdo garatu da. Karetak ondo atera dira eta harrapaketa ere bai.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Gaur euskararekin ez dugu arazo handirik izan. Ez dugu gomets gorrikerik jarri.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Eguneko helburuak bete dira.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Gaur zezenaren marrazkia, egunkariak eta goma erabili dugu.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Ez dago hobetzekorik.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...	Oso gustora ibili gara eta ekintzetan parte hartu ez duten haurrak gustora egotea lortu dugu



Data: 2021-07-08
Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Gaurko ekintzan guztiek hartu dute parte, eta talde kohesioa oso ona da. Baina beti aurrez planifikatutako ekintzetan parte hartzen ez duen haurrak, gaur ere ez du parte hartu nahi izan.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Ekintza modu egokian garatu da, eta haurrek ere ongietorri ona egin diote.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Betiko moduan taldekide batzuk gaztelerara jotzeko joera dute.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Eguneko helburuak bete dira.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Aurpegiak margotzeko pinturak.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Gaur ez dugu hobetzekorik ikusi.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...	Gaur hezitzaileak ondo egon garela esango genuke, parte hartzen ez duen haurrarekin gainean izan gara, eta aurrez prestatutako ekintzan parte hartu ez harren, gainontzekoekin elkarrekintzan mantentzea lortu dugu.



Data: 2021-07-09
Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Guztiak oso gustura hartu dute parte Aramako irteeran.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Ekintza arazorik gabe garatu da, haurrak oso gustura ibili dira, eta irteera humore onez hartu dute.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Gaur ez dugu gaztelera gehiegi entzun, orokorrean euskara izan da erabilitako hizkuntza.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Eguneko helburuak bete dira.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Ez dugu bestelako materialik erabili.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Bidean guztiak elkarrekin ibiltzea bermatu beharra dugu, haur bakoitza erritmo ezberdinean joanda zaila egiten da guztiak bistan izatea.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...	Hezitzaileak ere oso ondo moldatu eta gustura sentitu gara. Haurrei Araman libre utzi eta guztiak gustura ibiltzea lortu dugu.



Data: 2021-07-12

Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Haur guztiek hartu dute parte.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Ekintza ondo garatu da. Denboraz pentsatzen genuena baina gutxiago tardatu dugu pista guztiak aurkitzen. Hala ere, gero gustora ibili dira jolasetan.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Gaur euskaraz aritu dira haur guztiak.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Helburuak bete dira.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Pistak egiteko kartulinak eta goxokiak erabili ditugu. Material guztia ondo zegoen eta goxokiak haur guztientzako zeuden.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Pistak txikientzako zailegiak ziren.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...	Hezitzaileak ere gustora ibili gara.



Data: 2021-07-13

Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Aurrez zehaztutaki ekintzan guztiek hartu dute parte, eta guztiei erabat gogoz ikusi zaie jardueran.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Ekintza modu egokian garatu da, haurrek arretqz entzun dute eta beraien adinerako interesgarria eta ongi egokitua izan da.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Gaur ez dugu gaztelerarik entzun, euskara izan da nabarmena.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Eguneko helburuak guztiz bete dira, haurrak ekintzarekin bermatu nahi zena lortu da.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Gatza, klarionak, poteak, plastikoa, orri zuriak.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Ez dugu hobetzekorik ikusi gaur.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...	Gaur erabat gustura semtitu gara hartzaile guztiekin, ez dugu bestelako gertaerarik izan.



Data: 2021-07-14

Taldea: Haur Hezkuntza

<p>Parte hartzea:</p> <p>Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....</p>	<p>Orokorrean haurrek ekintzetan parte hartu dute jolasetan baina oso azkar aspertzen dira.</p>
<p>Ekintzaren garapena:</p> <p>Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...</p>	<p>Jolas bakoitza behin baino gehiagotan egiten badugu aspertu egiten dira.</p>
<p>Euskararen erabilera:</p> <p>Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...</p>	<p>Gaur ere euskara izan da nagusitu den hizkuntza.</p>
<p>Eguneko helburuak:</p> <p>Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den</p>	<p>Helburuak bete dira.</p>
<p>Materiala:</p> <p>Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen</p>	<p>Haur guztiak etorri dira mozturrotuta bat izan ezik. Haur horrentzako mozturro bat ekarri dugu begiraleok.</p>
<p>Hobetzekoa:</p> <p>Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...</p>	<p>Ekintza asko egin behar dira goizean zehar.</p>
<p>Hezitzailearen papera:</p> <p>Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...</p>	<p>Begiraleok pozik ibili gara.</p>



Data: 2021-07-15

Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den...	Orokorrean parte hartzea ona izan da, baina aurrez programatutako ekintza apur bat zaila izan denez haurrentzat moldatu egin behar izan dugu.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Ekintza hasieran gogoz hasi dute, baina animaliak egiteko zailtasuna handitzen joan den heinean umeak deskonektatzen joan dira, eta beraien mailara moldatu dugu.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Ez dugu gaztelerarik entzun goiz guztian.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Eguneko helburuak modu batera edo bestera bete dira.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Papel handia lurra ez zikintzeko, arrautza kajak, pintzelak eta tenperak.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Ez dugu hobetzekorik ikusi, ekintza haurren mailara moldatzeko beharra ikusi dugunean segituan aldatu dugu.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...	Hezitzaileak gustura sentitu gara, izan daiteke haur bat apur bat sentiberatsu etorri eta bere gainean egon behar izan dugu, baina bestela ekintzaren prozesuan ere oso gustura ikusi dugu geure burua.



Data: 2021-07-16

Taldea: Haur Hezkuntza

<p>Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....</p>	<p>Haur guztiek parte hartu dute eskulanean eta ur jolasetan.</p>
<p>Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...</p>	<p>Ekintza ondo garatu da. Gaur denboraz ondo ibili gara eta ez dira aspertu.</p>
<p>Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...</p>	<p>Euskara nagusitu da gaur ere bai.</p>
<p>Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den</p>	<p>Helburuak bete dira. Markoak egin ditugu eta ur jolasetan ibili gara.</p>
<p>Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen</p>	<p>Markoa egiteko material guztia ondo zegoen. Kartoia eta margoa erabili ditugu.</p>
<p>Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...</p>	<p>Ez dago hobetzekorik.</p>
<p>Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...</p>	<p>Hezitzaileak ere gustora egon gara.</p>



ITSASONDOKO UDALEKUAK 2021 BALORAZIO FITXA

Data: 2021-07-19

Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	
Hezitzailearen papera: Zuen sententzia, ekintzan nola egon zireten...	



ITSASONDOKO UDALEKUAK

2021 BALORAZIO FITXA

Data: 2021-07-19	
Taldea: Haur Hezkuntza	
<p>Parte hartzea:</p> <p>Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....</p>	<p>Haur guztiek hartu dute parte proposatutako ekintzetan. Erabat gustokoa izan dute jarduera eta interesa piztu zaie egiten ari giñen ekintzan.</p>
<p>Ekintzaren garapena:</p> <p>Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...</p>	<p>Ekintza modu egokian garatu dugu. Prozesuan bi hezitzaileok esku-hartu dugu pausu zailenetan, eta horrela haurrek tintearekin ibili dira.</p>
<p>Euskararen erabilera:</p> <p>Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...</p>	<p>Ez dugu gorabeherarik ikusi, orokorrean euskara izan da erabili den hizkuntza.</p>
<p>Eguneko helburuak:</p> <p>Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den</p>	<p>Eguneko helburuak bete dira.</p>
<p>Materiala:</p> <p>Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen</p>	<p>Kamixetak, tintea, ura...</p>
<p>Hobetzekoa:</p> <p>Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...</p>	<p>Dena modu onean joan da, eta ez dugu ezustekorik izan, hortaz, gaur ez dugu hobetzekorik antzeman.</p>
<p>Hezitzailearen papera:</p> <p>Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zireten...</p>	<p>Sentsazio onarekin egon gara biok, eta ekintza interesgarria izan dela iruditu zaigu.</p>



ITSASONDOKO UDALEKUAK 2021 BALORAZIO FITXA

Data: 2021-07-20

Taldea: Haur Hezkuntza

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Haur batek esan du ez dela gehiago etorriko udalekuetara ez delako gustura sentitzen. Gainontzeko haurrak etorri dira eta parte hartu dute.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Ekintza ondo garatu da eta denboraz ondo ibili gara.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Euskara nagusitu da.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Helburuak bete dira.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Koltxonetak, jaboia, kuboak eta mangera erabili ditugu. Material guztia ondo zegoen.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Ez dago hobetzekorik
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...	Hezitzaileak oso gustura ibiltzen gara ur jolasetan eta hurrekin ere gustura gaude.



ITSASONDOKO UDALEKUAK 2021 BALORAZIO FITXA

Data: 2021-07-21	
Taldea: Haur Hezkuntza	
Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Gaur 4 haur bakarrik etorri dira. Hala ere, guztiak egon dira parte hartzen.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Gaur Ordiziako azokara joan gara eta nahiko motel ibiltzen direnez, denbora asko kostatu zaigu bertara iristea.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Gaur ere euskara nagusitu da.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Helburuak bete dira.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Ez dugu materialik erabili.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Asko nekatu dira bidean. Agian ezin dugu horren urrutira joan oinez.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...	Sentsazioak onak izan dira eta haurrekin gustura ibili gara.



ITSASONDOKO UDALEKUAK 2021 BALORAZIO FITXA

Data: 2021-07-22	
Taldea: Haur Hezkuntza	
Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Gaur 5 haur etorri dira. Gainontzekoak jada oporretan daude. Aramara joan gara eta egunean zehar pozik eta motibatuta egon dira.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Ekintza ondo garatu da. Aramara igotzen ez dugu denbora asko tardatu.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Gaur pare bat aldiz esan diegu hurrei euskaraz hitz egiteko.
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Helburuak bete dira.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Gaur baloiak eta sokasaltoa igo ditugu.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Ez dago hobetzekorik
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zareten...	Hezitzaileak ere motibatuta egon gara eta sentsazio onekin.

ITSASONDOKO UDALEKU IREKIAK 2021

**EGUNEROKO
BALORAZIOA
FITXAK**

**Lehen
hezkuntza
6-8 urte**

**ITSASONDOKO UDALEKUAK****2021 BALORAZIO FITXA****Data: 2021-06-28****Taldea: LH 1 eta 2 mailak**

Parte hartzea: Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....	Orokorrean ekintzetan guztiek hartu dute parte, eta aktibo egon dira egindako jolas bakoitzean. Asanbladan ere gehienek parte hartu zuten eta guztien hitzari garrantzia eman zitzaion, ezer esan nahi ez zutenei ere bai. Taldeko arauak zehaztu eta proposamenak egiterakoan oso parte-hartzaile egon ziren, gure harridurarako.
Ekintzaren garapena: Ekintza bera nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...	Jolas bakoitzaren denborak ongi neurtu dira eta programazioa bete ahal izan dugu. Hala ere, jolasak errepikatzen ditugu. Batenbatek arazorik izan duenean elkar lagundu nahi izan dute.
Euskararen erabilera: Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...	Guztiek erabiltzen dute euskara bai begiraleekiko bai elkarrekiko. 2 kidek baino ez dute erdarara jotzen noizean behin baina euskeraz adierazteko zailtasunak zituztenean soilik
Eguneko helburuak: Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den	Ezagutza jolasek bai begiraleei bai haurrei baliogarriak izan zaizkigu eta gutaz hitz egiteko tarte bat hartu dugunez ezagutza helburuak bete dira. Kohesioa ere landu dugu adostutako jolasen bidez.
Materiala: Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen	Materialik ez dugu apenas erabili, eta behar izan duguna eskura izan dugu.
Hobetzekoa: Ekintzaren inguruan zerbait hobetu beharra, denbora libre asko, aspergarria...	Kide baten euskara joera landu behar dugu udalekuan zehar eta partehartzea sustatu nahigabe itzalean geratzen diren horiengan.
Hezitzailearen papera: Zuen sentsazioa, ekintzan nola egon zireten...	Oso gustora egon gara eta haurrak ere horrela sumatu ditugu gurekiko. Konfiantza dugula sentitu dugu eta hobetzea espero dugu.



Data: 2021-06-29

Taldea: LH 1 eta 2 mailak

<p>Parte hartzea:</p> <p>Haurrak nola egon diren, motibatuak. Ekintzan denek berdin parte hartu duten, bakarka haurren bat gelditu den....</p>	<p>Jolasak adostasunez hautatzen ahalegindu gara eta baten bat ados eon ez den arren ia guztiek hartu dute parte ekintzetan. Txandak errespetatu dituzte eta bakoitzari bere espazioa eman diote.</p>
<p>Ekintzaren garapena:</p> <p>Ekintza berri nola garatu den, arazorik izan den, denboraz nola ibili garen, egokia zen...</p>	<p>Oka jolas erraldoia antolatzea nahiko zaila izan da 10 haur bakarrik izanik, baina azkenean 5naka banatu ditugu eta begiraleetako bakoitza azpitalde batekin aritu da bai taulan bai porbatxoetan. Horrela jolasak aurrera egitea errazagoa izan da. Denboraz ongi aritu gara, hamaiketako ordurako amaitu dugu justu, eta ez die aspertzeko denborarik izan.</p>
<p>Euskararen erabilera:</p> <p>Euskara nagusitu den eta horrela ez bada zein momentuetan izan den, lanketa...</p>	<p>Guztiek erabiltzen dute euskara bai begiraleekiko bai elkarrekiko. 2 kidek baino ez dute erdarara jotzen noizean behin baina euskeraz adierazteko zailtasunak zituztenean soilik.</p>
<p>Eguneko helburuak:</p> <p>Baloratu helburuen betetze maila egunekoa nola izan den</p>	<p>Taldean jardun dira nahiz eta rola betiko moduan banatu diren. Elkarri laguntzen ahalegintzen dira une oro eta kontziente dira duten elkarreraginaz eta beharraz.</p>
<p>Materiala:</p> <p>Ondo moldatu garen, gehiago, gutxiago edo beste zerbait behar zen</p>	<p>Oka jolaserako taula erabat egokia izan da, haurrak gustura aritu dira.</p>
